

2015  
2019

Batzar Orokorrak Espainiako Gurutze Gorriaren datorren aldirako (2015-2019) posizioa zehaztu du, eta **pertsonengandik gero eta hurbilago** egoteko jardun-konpromisoak erabaki ditu.

## Nolakoak izan nahi dugu datozen urteetan?

Pertsona kalteberei giza garapenaren eta garapen komunitarioaren ikuspegitik erantzungo dien eta pertsona horien gaitasun indibidualak gizarte-testuinguruan sendotuko dituen boluntario-izaerako eta gizartean erabat errotutako erakunde humanitarioa.

## Zer lortu nahi dugu?



Estatuko eta nazioarteko eremuetan pertsona kalteberengandik gero eta hurbilago egotea, funtsean boluntarioek egingo dituzten eta parte-hartze sozial eta lurralde-presentzia handia izango duten ekintza integratuen bidez.

## Nola lortu nahi dugu?

- **Hurbiltasuna.**  
Errealtateak pertsonen hurbileko ingurunean aztertuz.
- **Boluntariotza.**  
Aldaketa- eta eraldaketa-agente gisa jardungo duten boluntarioekin.
- **Parte-hartzea.**  
Eta parte hartzeko eta lankidetzan aritzeko aukera berriak bultzatuz, gure ideia humanitarioetan sakontzeko.
- **Pertsonenganako orientazioa.**  
Pertsonak gure konpromiso humanitarioaren erdigunean kokatuz.
- **Lotura.**  
Pertsonen premia, interes eta gaitasunekin dugun konpromisoa eta hurbiltasuna agerian utziz.
- **Orientazio komunitarioa.**  
Gizarteko beste eragile batzuekiko lankidetzeta eta harremana bilatuz.
- **Erantzunkidetasuna.**  
Erantzukizunak, proiektuak eta zerbitzuak partekatuz, eta sareko lana bultzatuz.
- **Gobernu ona.**  
Zuzentasun, austeritate, gardentasun eta erantzukizunean oinarritutako erakunde-jardunerako eredu bat ziurtatuz.
- **Berrikuntza.**  
Ikerketaren bidez pertsonen arazoei irtenbide kreatiboak eta iraunkorrak emanez.
- **Eraginkortasuna eta efizientzia.**  
Prozesuak arinduz eta sinplifikatuz, erakunde arinago, indartsuago eta iraunkorrago bat lortzeko.
- **Erantzun integrala.**  
Pertsonen premiei erantzungo dieten ekintza integralak garatuz.



[www.cruzroja.es](http://www.cruzroja.es) 902 22 22 92

 [www.facebook.com/CruzRoja.es](http://www.facebook.com/CruzRoja.es)  
 @CruzRojaEsp



Gizatasuna Inpartzialtasuna Neutraltasuna Independentzia Boluntariotza Batasuna Unibertsaltasuna



**Guztion artean erabaki ditugu...**

Pertsonengandik gero eta hurbilago  Gurutze Gorria

...gure konpromisoak

**Zer egingo  
dugu** lau urte hauetan?

2015  
2019

## Gurutze Gorri konprometituagoa...

### Gure Printzipio eta Balioetan oinarrituta,

nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren eta Giza Eskubideen Nazioarteko Zuzenbidearen zabalkundea sustatuz, gure oinarritzko printzipio eta balioen inguruan dugun kohesioa areagotuz, eta, Diplomazia Humanitarioaren bitartez, eragiteko dugun ahalmena bultzatuz.

### Kalteberatasun- egoerei erantzunez,

gure jardunak gizarte-aldaketetara eta gizarte-eskarietara egokituz, esku-hartzearen ikuspegi integrala sustatuz, eta prebentzio-alderdia zein eraldaketa-dimentsioa sendotuz.

### Gizartearekin bat eginez,

boluntariotzak herritarren parte-hartzean, lankidetzan eta elkartasunean erantzun- eta estimulu-elementu gisa betetzen duen zeregina bultzatuz, osasunaren, sorospenen eta larrialdien eremuei lotutako sustapenean, trebakuntzan eta hezkuntzan erreferentzia izatea lortuz, eta sareak eta aliantzak gizarte-eraldaketarako elementu gisa sustatuz.

### Etengabe bilakatuz,

gure lurralde-sarea sendotuz, finantzaketa-iturriak dibertsifikatuz, kudeaketa-eredua hobetuz, eta gardentasunaren, gobernu onaren eta kontuak emateko zereginaren hobekuntzan sakonduz, oinarritzko alderdiak baitira herritarrek erakundean duten konfiantza bermatzeko.



### Krisiak kaltetutako pertsontzat eta familientzat

Krisia gainditzeko beharrezkoa den babesa emanez.



### Haurrentzat

Aukera-berdintasuna bultzatuz, oztopoak ezabatuz eta heziz.



### Adinekoentzat, mendekoentzat eta zaintzaileentzat

Etxean jarraitzeko aukera eta zahartze aktibo eta osasungarria bultzatuz.



### Gazteentzat

Gazteak aktibatuz, beren autonomia eta garapen pertsonala sendotzeko.



### Kalteberatasun- egoera larrian dauden pertsonentzat

Egoera larrian dauden pertsonen premia animiko eta materialak arinduz.



### Etorkinentzat eta errefuxiatuentzat

Arreta humanitaria ziurtatuz eta gizarteratzen lagunduz.



### Gizarte-zailtasunak dituzten emakumeentzat

Kalteberatasun handiko egoeran dauden emakumeei (eta, batez ere, genero-indarkeria jasaten dutenei) beharrezko babesa emanez.



### Adikzioak dituzten pertsontzat

Kalteak prebenituz, arinduz eta murriztuz.



### Dibertsitate funtzionala duten pertsonentzat

Eguneroko jarduerak zailtasunik gabe eta baldintza berdinetan egiten lagunduz.



### GIBa duten pertsonentzat

Kaltetutako kopurua murriztuz, seropositiboek laguntza emanez, eta estigmaren aurka borrokatuz.



### Askatasunaz gabetutako pertsontzat

Gizarteratzea bultzatuz eta kalteen konponketa erraztuz.



### Langabezia-egoeran dauden pertsonentzat

Lan-aktibazioko ekimenen bitartez, enplegarritasuna hobetuz, lan-merkatuan txertatzeko aukera erraztuz eta autoenplegu-ekimenak babestuz.



### Sorospen eta larrialdietarako

Hainbat mota eta mailatako larrialdiei aurre egiteko gaitasunak baliatuz, kasu bakoitzean eskumena duten agintariekin koordinatuta.



### Osasunerako - Biztanleriarentzat, oro har

Prebentzioaren eta ohitura osasungarrien sustapenean bitartez.



### Prestakuntzarako

Pertsonen gaitasunak eta trebetasunak hobetuz.



### Ingurumenerako

Ingurumenaren nariadurak pertsona kalteberengan eraginik izan ez dezan esku hartuz, eta ingurumena hobetzen lagunduz.



### Ikerketak egiteko eta gizarte- berrikuntzarako

Gure erabiltzaileen egoerari buruzko analisisian eta jakintzan oinarrituta, pertsonen arreta hobetuz.



### Nazioarteko lankidetzarako

Gure elkartasun-konpromisoa beste herrialde batzuetako herritarrik kalteberenei helaraziz.

## Norentzat egiten dugu lan?